Agindu hau dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eman daitekeen kopurua 17.640.577 PTA (106.022 Euro) izango da, gehienez ere. Era berean, NBBEF-Bermearen funtsen kontura, 10.811.648 PTA (64.979,31 euro) eman ahal izango dira laguntzotarako, gehienez ere. Beraz, laguntzotarako erabiliko diren funtsak ez dira 28.452.227 PTA (171.001,33 euro) baino gehiago izango.

Artikulu honetan ezarritako guztizko kopuru hori alda liteke, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuta, Nekazaritza eta Arrantza Saileko beste laguntza-programa batzuk gauzatzetik atera daitezkeen aurrekontu-baliabide agortu gabeen arabera, eta laguntzei buruzko ebazpena hartu baino lehen. Nekazaritza eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen batek emango du horren berri.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesaturik daudenek berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epearen barruan, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo, besterik gabe, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epearen barruan, agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 5a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

El volumen total de las ayudas a conceder en virtud de la presente Orden con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV ascenderá a la cantidad de 17.640.577 PTA (106.022 Euros). Asimismo, con cargo a los fondos del FEOGA-Garantía se podrán conceder ayudas por una cuantía máxima de 10.811.648 PTA (64.979,31 Euros) con lo que el total de los fondos destinados a estas ayudas no superará la cantidad de 28.452.227 PTA (171.001,33 Euros).

El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Agricultura y Pesca y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero Agricultura y Desarrollo Rural.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrán los interesados interponer recurso de reposición ante el Consejero de Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 2001.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTÍNEZ DE LAHIDALGA.

## Zk-1485

AGINDUA, 2001eko martxoaren 15ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez Euskal Oiloa hegazti-arrazari buruzko arau bereziak onartu baitira.

Gaur egun, Euskal Herrian galtzeko arriskuan dauden animali arraza autoktonoek osatzen duten ondare genetikoa zaintzea –baliabide genetikoak eta animali bioaniztasuna identifikatuz, ebaluatuz, behar bezala erabiliz eta zainduz– gizartearen eta erakundeen apustu garbia da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzain-elkarteek eta herri-administrazioek orain dela zenbait urte elkarrekin hasitako lana bultzatzea da ekimen honen helburua. Hartara, Euskal Herriko hain-

## N°-1485

ORDEN de 15 de marzo de 2001, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza aviar «Euskal Oiloa».

Hoy en día, la conservación del patrimonio genético que suponen las diferentes razas animales autóctonas del País Vasco en peligro de extinción, identificando, evaluando, utilizando eficazmente y conservando así los recursos genéticos y la biodiversidad animal, es una apuesta indudable de la sociedad y las instituciones. Con ello se pretende potenciar el trabajo emprendido conjuntamente desde hace años entre las diversas Asociaciones de Ganaderos y Administraciones públicas vas-

bat animalia autoktonoren arraza-estandarrak ezarri dira, galtzeko arriskuan izan baitira, edo, oraindik ere, galtzeko zorian baitaude.

Ildo horretatik, beharrezkoa da Euskal Oiloa hegazti-arrazaren biziraupen, berreskuratze eta hobekuntza ahalbidetuko duten arauak finkatzea, Euskal Autonomia Erkidegoak abeltzaintza alorrean duen eskumen esklusiboaren egikaritzaren barruan. Horrela, bada, animali ekoizpen eta osasunaren alorreko zerbitzuak Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzko uztailaren 24ko 2030/1981 Errege Dekretuan, urtarrilaren 4ko 1/1999 Dekretuan eta maiatzaren 11ko 218/1999 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Euskal Oiloa hegazti-arrazaren Erregistro Liburu Nagusiari buruzko arau bereziak onartu dira. Arau horiek agindu honen eranskinean argitaratzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 15a.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.

ERANSKINA

## EUSKAL OILOA HEGAZTI-ARRAZAREN ERREGISTRO LIBURU NAGUSIAREN ARAU BEREZIAK

### I. KAPITULUA ARRAZAREN PROTOTIPOA

1.– Definizioa.

Arau hauetan zehazturiko arraza-prototipoarekin bat datozenak hartuko dira Euskal Oiloa hegazti-arrazakotzat.

2.– Ezaugarri morfologikoak.

2.1.– Ezaugarri orokorrak:

a) Hegazti erdi-astuna da, gandor soil eta ertainekoa, belarritxo gorri eta hanka horiak dauzka.

Arraza landatarra da, bai erruletzat, bai haragitarako egokia.

b) Bost barietate daude:

cas. Así, se han venido estableciendo los estándares raciales de diversos animales autóctonos del País Vasco que han estado o siguen estando en peligro de desaparecer.

En razón de lo dicho, es necesario establecer la reglamentación que permita la conservación, recuperación y perfeccionamiento de la raza aviar «Euskal Oiloa», dentro del ejercicio de la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ganadería. Así, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 2030/1981, de 24 de julio, sobre traspaso de servicios del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Producción y Sanidad Animal, y en los Decretos 1/1999, de 4 de enero y 218/1999, de 11 de mayo.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Aprobar la reglamentación específica del Libro General de Registro de la raza aviar «Euskal Oiloa», que figura como Anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2001.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
IÑAKI GERENABARRENA MARTINEZ DE LAHIDALGA.

ANEXO

## REGLAMENTACIÓN ESPECÍFICA DEL LIBRO GENERAL DE REGISTRO DE LA RAZA AVIAR «EUSKAL OILOA»

### CAPÍTULO I PROTOTIPO RACIAL

1.– Definición.

Se definen como ejemplares de la raza aviar «Euskal Oiloa» aquellos que corresponden al prototipo racial determinado en la presente norma.

2.– Características morfológicas.

2.1.– Características generales.

a) Es una ave semipesada, de cresta sencilla y mediana, orejillas rojas y tarsos amarillos.

Es una raza rústica y de aptitud mixta, aceptable tanto en puesta como en producción de carne.

b) Se presenta en cinco variedades:

– Beltza.
– Gorria.
– Lepasoila.
– Marraduna.
– Zilarra.

c) Lumajea: gorputzari itsatsi samarra, luma biribiltsuez osatua.

d) Arrautzak: handi samarrak, 60 bat gramokoak, oskol ilunekoak.

e) Pisua: oilarrak, 3,6 kilo inguru. Oiloak 2,5 kilo inguru.

f) Eraztunen diametroa: oilarrarenak 20 mm. Oiloarenak, 18 mm.

2.2.– Oilarraren morfologia.

2.2.1.– Burua eta lepoa.

a) Burua: luzea, zabala.

b) Aurpegia: leuna, gorri-gorria.

c) Gandorra: soila, ertaina, tente eta sendoa. Bostzazpi mutur ditu, nabariak. Ezproia altxatuxea lepo-lerroan. Gorri bizi-bizia.

d) Kokotsak: luze, mehe, leunak, azpiko ertza biribildua. Gorri-gorria.

e) Belarritxoak: tamaina ertainekoak, aurpegiari itsats-itsatsiak, leunak eta lantza erakoak, gorri-gorriak.

f) Mokoa: sendoa, itxurosoki gakotua. Gorria, Lepasoila eta Zilarra barietateetan, goiko baraila arre ilunagoa da adar-horista baino areago. Beheko barailan orban arre ilunak ager daitezke, alderdi proximalean bakarrik. Marraduna barietatearen beheko baraila horia da erabat, orbanik gabea; Beltza barietatean, beltza.

g) Begiak: handi obalatuak, irisa gaztaina-kolore argikoa dutela.

h) Lepoa: ez luzeegia, ongi gakotua. Esklabina ugaria, bizkar gainean harrotua.

2.2.2.– Enborra.

a) Bizkarraldea: zabala, isats aldera erorixea. Lits ugari, luzera ertainekoak.

b) Bularra: zabal, sakon eta ederki biribildua.

c) Sabelaldea: garatu samarra.

d) Isatsa: ertaina. Lemari zabalak, elkarren gainean antolatuak, horizontalarekiko 45.º-ko eroriarekin. Isats luma ertainak, ondo kurbatuak.

2.2.3.– Gorputz-adarrak.

a) Hegoak: handiak, ongi tolestuak, gorputzari itsatsiak.

b) Izterrak: sendo, indartsuak.

c) Hankak: luze samarrak, mardul eta sendoak, horixkak. Hanka bakoitzean lau behatz.

– Beltza.
– Gorria.
– Lepasoila.
– Marraduna.
– Zilarra.

c) Plumaje: Medianamente ceñido y de plumas redondeadas.

d) Huevos: Más bien grandes, de alrededor de 60 gramos y con la cáscara de color moreno.

e) Peso: Gallo alrededor de 3,6 Kg. - Gallina de 2,5 Kg.

f) Diámetro de anillas (en mm.): Gallo 20 - Gallina 18.

2.2.– Morfología del gallo.

2.2.1.– Cabeza y cuello.

a) Cabeza: Larga y ancha.

b) Cara: Lisa y de color rojo vivo.

c) Cresta: Simple, de tamaño mediano, derecha y firme. Presenta de cinco a siete dientes bien definidos. El espolón aparece ligeramente levantado de la línea del cuello. De color rojo vivo.

d) Barbillas: Largas, delgadas y lisas, con el borde inferior redondeado. De color rojo vivo.

e) Orejillas: De tamaño mediano, bien pegadas a la cara, lisas y de forma lanceolada. De color rojo vivo.

f) Pico: Fuerte, vigoroso y bien curvado. En las variedades Gorria, Lepasoila y Zilarra, predomina en la mandíbula superior el pardo oscuro sobre el córneo amarillento; en la inferior pueden aparecer manchas de color pardo oscuro pero sólo en la parte proximal. En la Marraduna es amarillo en su totalidad, sin manchas, y en la Beltza es negro.

g) Ojos: Grandes y ovales; con el iris castaño claro.

h) Cuello: Moderadamente largo, bien arqueado; esclavina abundante, flotando sobre la espalda.

2.2.2.– Tronco.

a) Dorso: Ancho y cayendo ligeramente hacia la cola; caireles abundantes y de longitud mediana.

b) Pecho: Ancho, profundo y bien redondeado.

c) Abdomen: Bastante desarrollado.

d) Cola: De tamaño medio. Timoneras anchas y superpuestas, colocadas en ángulo de 45.º sobre la horizontal. Hoces de largo mediano, bien curvadas.

2.2.3.– Extremidades.

a) Alas: Grandes, bien plegadas y ceñidas al cuerpo.

b) Muslos: Fuertes y robustos.

c) Tarsos: Más bien largos, gruesos, fuertes y de color amarillento. Con cuatro dedos.

2.3.– Oiloaren morfologia.

Oilarraren antzekoa, mokoa izan ezik: oiloak ez du arrak bezain gakotua; gandorra, mediterraniar arrazetan ez bezala, tentea da, ez da erortzen alboetara eta oilo haiena baino txikiagoa da. Kokotsak labur eta biribilagoak dira. Belarritxoak txikiago, lantza-erakoak hauek ere. Bularra irtena da, zabala, oilarrarena baino estuagoa, dena den. Isatsa txikia, ez oso harrotua (35.º), lemariak zabal eta elkarren gainean antolatuak. Izter eta hankak, oilarrarenak bezalakoak, sexuari dagozkion proportzioetan, nolanahi ere.

2.4.– Kolore-barietateak.

2.4.1.– Beltza.

Oilarra eta oiloa: lumaje beltz-beltza, isla berde-urdinak dituena, oilarrarenak oiloarenak baino gehiago.

2.4.2.– Gorria.

a) Oilarra:

– Esklabina eta lits gorri-laranjatuak, gainerako lumajea baino distiratsuago. Esklabinaren bukaera aldeko luma beltzek lantza-muturraren itxura hartzen dute.

– Hegoetan, arkua eta gaineko lumak gaztaina-kolorekoak dira. Arraunlari primario eta sekundarioetan gaztaina-kolorea da nagusi, gorri-aztarnarik gabe, beltzaren gainean; zenbat eta gaztaina-kolorea gehiago agertu orduan eta balio handiagokoa da hegaztia. Hegaldiko estal-lumen azpiko ertza osatzen duten 8-10 lumak beltzak dira.

– Isatseko lemariak eta igitai-luma beltzek distira berde metalikoa dute.

– Bizkarraldea eta zela arre-gorriskak dira, hegoaren arkua eta gaineko lumak bezala.

– Lepoaren aurrealdea, bularra, gorputza eta izterrak arre ilunak dira. Azpikolorea horaila da.

b) Oiloa:

– Lumajea, oro har, arre kolorekoa da.

–Lepoko laranja-tonuak nabarmentzen dira, nahiz oilarrarena bezain bizia ez izan. Lepoaren bukaera aldeko luma-muturrak beltzak dira eta isatseko lemariak beltzak dira, erabat edo nagusiki.

– Distira metalikoa dute, baina ez oilarrenek bezain bizia.

2.4.3.– Lepasoila:

a) Oilarra:

– Lepoak, besaburuak, papoaldea, izterren barnealdea eta sabelaren alboak lumagabeak ditu.

– Bularrean bi luma-ilara agertzen dira, esternoiaren alde banatan.

2.3.– Morfología de la gallina.

Como el gallo salvo el pico, que es menos curvado. La cresta, al contrario que en las razas mediterráneas, es derecha, no cuelga hacia los lados y está menos desarrollada que en ellas. Las barbillas son más cortas y redondas. Las orejillas son más pequeñas, pero conservando la forma lanceolada. El pecho es saliente y ancho pero menos que en el gallo. La cola es más bien pequeña y poco levantada (35.º), con las timoneras anchas y superpuestas. Los muslos y los tarsos, como en el gallo, pero en proporciones propias del sexo.

2.4.– Variedades de color.

2.4.1.– Beltza.

Tanto en el gallo como en la gallina, el plumaje es totalmente negro con reflejos verdes azulados, más en el primero que en la segunda.

2.4.2.– Gorria.

a) Gallo:

– La esclavina y los caireles son de color rojo anaranjado, destacando por su brillo sobre el resto de plumaje. En la parte final de la esclavina las plumas presentan, en su centro, una punta de lanza negra.

– En las alas, el arco y las cubiertas son de tono castaño. En las remeras primarias y secundarias predomina el castaño, sin tonalidad rojiza en este caso, sobre el negro, valorándose más los animales cuanto más proporción de castaño presenten. Las 8-10 plumas que constituyen la hilera inferior de coberteras del vuelo son negras.

– La cola tiene las timoneras y las hoces de color negro con brillo verde metálico.

– El dorso y la silla son de color pardo rojizo, como el arco y las cubiertas del ala.

– El frente del cuello, el pecho, el cuerpo y los muslos son de color pardo oscuro. El subcolor es crema.

b) Gallina:

– El plumaje general es de tono pardo.

– El cuello destaca por su tonalidad anaranjada aunque no de forma tan acusada como en los gallos. En la parte final del cuello presenta las plumas con puntas negras, y en la cola las timoneras son negras o con predominio del negro.

– Presenta brillo metálico pero menos que en los gallos.

2.4.3.– Lepasoila.

a) Gallo:

– El plumaje presenta el cuello, los hombros, la zona del buche, la cara interna de los muslos y las zonas laterales del abdomen desprovistos de plumas.

– En la pechuga se aprecian dos hileras de plumas, una a cada lado del esternón.

– Gorputzaren gainerakoa estaltzen duen lumajea Gorria barietatearen berdina da.

– Lepo oso eta papoaldeko larruazalaren kolorea gorri-gorria da.

b) Oiloa: oilarrak bezalako lumajea duen arren, lepo eta papoaldeko larruazala ez da harena bezain gorria.

2.4.4.– Marraduna.

a) Oilarra:

– Barietate honetako lumajearen funtsezko bereizgarria, Gorria barietatean aipatutako koloreekin nahasten diren zerrenda zuriak dira.

– Bigarren datu adierazgarria: gaztaina-koloreko tonu guztiak (baita beltza bera ere) argiagoak dira hegazti hauetan. Azpikolorea bolia da orain.

b) Oiloa:

– Marrak zehaztugabeagoak ditu oiloak; aukeran, zehatzena dutenak dira animalia hautazkoak. Alboetan, izterren parean, nabaritzen dira muga horiek modu egokienean.

– Gaztaina-koloreko tonuak argiago dira barietate honetako oiloan.

2.4.5.– Zilarra:

Oilarra eta oiloa: Gorria barietateko hegaztien antzeko lumajea dute arrak eta emeak; hauetan, dena den, gorri eta gaztaina-koloreak barietate honetan zuri-zuriak dira; alderdi beltzak beltz dira hemen ere.

2.5.– Akats larriak.

– Belarritxoak zuri agertzea.

– Hego eta isatsean luma zuriak agertzea, Zilarra barietateko hegaztietan izan ezik.

– Hankak hori kolorekoak ez izatea.

II. KAPITULUA
KALIFIKAZIO MORFOLOGIKOA

3.– Erabili beharreko baremoa.

Arrazaren estandarraren betebeharren arabera, puntuazio metodoaren bidez egingo da kalifikazio morfologikoa. Alde anatomiko bakoitzari puntu bat emango zaio gutxienez, eta hamar gehienez, ondoko baremo honen arabera:

| | |
|---|---|
| Perfektua | 10 puntu |
| Bikaina | 9« |
| Oso ona | 8« |
| Ona | 7« |
| Onargarria | 6« |
| Nahikoa | 5« |
| Baztertzekoa | 5 puntu baino gutxiago |

Balioetsi beharreko edozein alderi 5 puntu baino gutxiago emanez gero, aberea deskalifikatu egingo da, gainerako aldeek lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe.

– La coloración del plumaje que cubre el resto del cuerpo es igual que en la variedad Gorria.

– La piel, en la totalidad del cuello y parte de la zona del buche, toma coloración rojo vivo.

b) Gallina: El plumaje es igual que en el gallo sin que la piel del cuello y buche sea tan roja.

2.4.4.– Marraduna.

a) Gallo:

– El plumaje de esta variedad se caracteriza fundamentalmente por la presencia de franjas blancas entremezcladas con el colorido descrito en la Gorria.

– Un segundo efecto destacable es que todas las tonalidades castañas se aclaran, al igual que el negro. Aquí el subcolor es marfil.

b) Gallina:

– El barrado es más difuso, siendo deseable que esté lo más marcado posible. Es en los costados, a la altura de los muslos, donde mejor se aprecia éste.

– Los tonos castaños son más claros.

2.4.5.– Zilarra:

Tanto en el gallo como en la gallina, el plumaje es exactamente igual que en la variedad Gorria pero sustituyendo todos los colores y tonos rojos y castaños por color blanco; quedando las zonas negras iguales.

2.5.– Defectos graves.

– Coloración blanca en orejillas.

– Presencia de plumas blancas en las alas y en la cola, salvo en la variedad Zilarra.

– Tarsos no amarillos.

CAPITULO II
CALIFICACION MORFOLOGICA

3.– Baremo a utilizar.

Conforme a las exigencias del estándar racial, la calificación morfológica se realizará sobre la base del método de puntos, asignándole a cada región de uno a diez, según el siguiente baremo:

| | |
|---|---|
| Perfecta | 10 puntos |
| Excelente | 9« |
| Muy Buena | 8« |
| Buena | 7« |
| Aceptable | 6« |
| Suficiente | 5« |
| Eliminable | Menos de 5 puntos |

La adjudicación de menos de cinco puntos a cualquiera de las regiones de valoración será causa de descalificación, sin que se tenga en cuenta el valor obtenido para los restantes.

4.– Kalifikatu beharreko alderdiak eta alderdion ponderazioa.

Jarraian adierazten da kalifikatu behar diren alderdiak zein diren. Haietariko bakoitzerako, gainera, ponderazio-koefizientea adierazten da.

Alde bakoitzari esleitutako puntuazioa bider aldeari dagokion koefizientea egingo da, ondoko taularen arabera, eta hala aberearen behin-betiko puntuazioa lortuko da:

Koefiziente biderkatzaileak

| Kalifikatzeko aldeak | Arrak | Emeak |
|---|---|---|
| Burua eta lepoa | 1,5 | 1,5 |
| Sorbalda eta soingurutzea | 1 | 1 |
| Bularra eta saihetsak | 1 | 1 |
| Bizkarra eta gerruntzea | 1 | 1 |
| Zerra eta buztana | 1 | 1,5 |
| Gorputz-adarra eta hanka-jarrera | 1,5 | 1,5 |
| Sexu-ezaugarriak | 0,5 | 0,5 |
| Tenperamentua eta eiteen osotasuna | 2,5 | 2 |
| Guztira | 10,0 | 10,0 |

Azken puntuazioa horrela lortuta, abereak kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

| Kategoria | Lortutako puntuak |
|---|---|
| Perfektua | 100 |
| Bikaina | 91tik 99,99ra |
| Oso ona | 81etik 90,99ra |
| Ona | 75etik 80,99ra |
| Onargarria | 70etik 74,99ra |
| Nahikoa | 60tik 69,99ra |
| Eskasa | 55etik 59,99ra |
| Txarra | 55 baino gutxiago |

## III. KAPITULUA
## HEGAZTIEN ERREGISTRO LIBURUA

5.– Erregistroa.

Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Oiloa arrazako hegaztiak hazten dituen bakoitzak Hegaztien Erregistro Liburua izan beharko du, eta bere hegazti-ustiategian jaiotako animalien zerrenda jasoko du bertan.

Era berean, Euskal Oiloa hegazti-arrazako animalia bakoitzari eraztuna eta zenbakia jarriko dizkio hegaztizainak.

## IV. KAPITULUA
## ONARPEN ETA KALIFIKAZIO BATZORDEA.

6.– Eraketa eta eginkizunak.

Onarpen eta Kalifikazio Batzordea eratzen da, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita. Batzordearen eginkizunak ondoko hauek izango dira:

4.– Aspectos a calificar y su ponderación.

Los aspectos objeto de calificación serán los que a continuación se relacionan con expresión, para cada uno de ellos, del coeficiente de ponderación.

Los puntos que se asignen a cada uno de dichos aspectos se multiplicarán por el coeficiente correspondiente, conforme a la tabla siguiente, resultando así la puntuación definitiva del animal:

Coeficientes Multiplicadores

| Regiones de calificación | Machos | Hembras |
|---|---|---|
| Cabeza y cuello | 1,5 | 1,5 |
| Espalda y cruz | 1 | 1 |
| Pecho y costillas | 1 | 1 |
| Dorso y lomo | 1 | 1 |
| Grupa y cola | 1 | 1,5 |
| Miembros y aplomos | 1,5 | 1,5 |
| Caracteres sexuales | 0,5 | 0,5 |
| Temperamento y conjunto de formas | 2,5 | 2 |
| Total | 10,0 | 10,0 |

Obtenida así la puntuación final, los ejemplares quedarán clasificados según las siguientes categorías:

| Categoría | Puntos obtenidos |
|---|---|
| Perfecto | 100 |
| Excelente | 91 a 99,99 |
| Muy bueno | 81 a 90,99 |
| Bueno | 75 a 80,99 |
| Aceptable | 70 a 74,99 |
| Suficiente | 60 a 69,99 |
| Insuficiente | 55 a 59,99 |
| Malo | Menos de 55 |

## CAPITULO III
## LIBRO DE REGISTRO AVÍCOLA

5.– Registro.

Cada avicultor dedicado a la cría de la raza «Euskal Oiloa» en la Comunidad Autónoma del País Vasco deberá disponer de un Libro de Registro Avícola en el cual anotará la relación de animales nacidos en su explotación avícola.

Asimismo, el avicultor procederá al anillamiento individual y numerado de cada animal de la raza aviar «Euskal Oiloa».

## CAPITULO IV
## COMISIÓN DE ADMISIÓN Y CALIFICACIÓN

6.– Constitución y funciones.

Se constituye la Comisión de Admisión y Calificación, adscrita al Departamento de Agricultura y Pesca, que tendrá como funciones:

a) Euskal Oiloa hegazti-arrazaren Erregistro Liburu Nagusian inskribatu nahi diren animaliak eta haien agiriak aztertzea, arautegi honetan ezarri diren eskakizunak betetzen ote diren egiaztatzeko.

b) Animaliak kalifikatzea. Onarpen eta Kalifikazio Batzordeak beste pertsona eskudun baten edo batzuen esku utz dezake eginkizun hau; hala eginez gero, beste pertsona horren edo horien lana gainbegiratuko du.

c) Bidezkoa bada, animalia edo animaliak onar daitezen erabakitzea.

d) Euskal Oiloa hegazti-arrazaren Erregistro Liburu Nagusia kudeatzen duen lurralde-erakunde eskudunari ebaluazioen emaitzen berri ematea.

7.– Osaketa.

Batzordekideak hauek izango dira:

a) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza zuzendariak izendaturiko teknikari-albaitari bat, batzordeburu arituko dena.

b) Lurralde historiko bakoitzeko foru erakunde eskudunak izendaturiko teknikari-albaitari bat.

c) Lurralde bakoitzeko hazle/abeltzain elkarteko kide bat.

a) Proceder al examen de la documentación y de los animales para los que se haya solicitado su inscripción en el Libro General de Registro de la raza aviar «Euskal Oiloa» con el fin de verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos en este reglamento.

b) Calificar los animales. La Comisión de Admisión y Calificación podrá delegar esta función en la persona o personas competentes bajo su supervisión.

c) Acordar su admisión si procede.

d) Notificar los resultados de sus evaluaciones a la entidad territorial correspondiente gestora del Libro General de Registro de la raza aviar «Euskal Oiloa».

7.– Composición.

La comisión estará formada por los siguientes miembros:

a) Un técnico veterinario, que actuará como Presidente, designado por el Director de Agricultura del Gobierno Vasco.

b) Un técnico veterinario designado por el órgano Foral competente en cada Territorio Histórico.

c) Un representante de la Asociación de Criadores/Ganaderos de cada Territorio.

## Zk-1486

AGINDUA, 2001eko martxoaren 1ekoa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, zeinaren bitartez azaroaren 21eko 234/2000 Dekretuaren babesean eskariak aurkezteko epea ireki baita 2001erako. Dekretu horrek sustapen eta garapen laguntzak arautu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren menpe-menpeko eremuetarako.

Azaroaren 21eko 234/2000 Dekretuak sustapen eta garapen laguntzak arautu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko arrantzaren menpe-menpeko eremuetarako (226 zk.ko EHAA, 2000ko azaroaren 24koa). Honako hau da dekretu horren xedea: laguntza ekonomikoak emateko araubidea bildu eta arautzea; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan arrantzaren menpe-menpean bizi diren eskualdeak, bertako ekoizpen-sarearen dibertsifikazioaren bitartez, berrindartzeko eta eraberritzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko.

Dekretu horren 5.2 artikuluak ezarri duenez, besteak beste, eskabideak aurkezteko epea finkatu eta aurrekon-

## N°-1486

ORDEN de 1 de marzo de 2001, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se procede a la apertura del plazo de presentación de solicitudes para 2001 al amparo del Decreto 234/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan las ayudas de promoción y desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 234/2000, de 21 de noviembre, por el que se regulan las ayudas de promoción y desarrollo de las zonas altamente dependientes de la pesca en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV n.º 226, de 24 de noviembre de 2000), tiene por objeto recoger y regular la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de actividades e inversiones para la revitalización y renovación, mediante la diversificación del tejido productivo de las zonas altamente dependientes de la pesca de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 5.2 de dicho Decreto establece que, anualmente, por Orden del Consejero de Agricultura y